ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2021

11/2

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2021

FRACKING EZ
Garoña itxi



# NAZIOARTEKO ZIKLO-KROS PROBA ITZULI DA LAUDIORA PANDEMIAREN OSTEAN

## La prueba internacional de ciclocross regresa a Laudio tras la pandemia

FUNERARIA
LARRAZ
EHORZTETXEA

CADA PERSONA ES ÚNICA. SU DESPEDIDA, TAMBIÉN.

Funeraria Larraz te ayuda a dar el mejor adiós a tus seres queridos.

FUNERARIA LARRAZ EHORZTETXEA.
SERVICIOS FUNERARIOS INTEGRALES EN ARABA Y BIZKAIA DESDE 1944

Laudio: C/ José Matía, 36 Teléfono: 94 672 77 50
Amurrio: Pol. Ind. Kalzadako A1 Teléfono: 94 672 77 50
Arrigorriaga: C/ La Cruz, 1 Teléfono: 94 671 00 61
Amorebieta: San Pedro, 26 Teléfono: 94 671 00 61

www.funerarialarraz.com

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
www.bautistamuebles.com

Black Friday
Sólo hasta el 27/11

·Cocinas
·Baños
·Salones
·Sofás
·Dormitorios
·Juveniles
·Armarios
¡Y MUCHO MÁS!

Hasta -25%
EN TODAS NUESTRAS SECCIONES

mundiSalud
Clínica Dental

Seguimos atendiendo con la mejor sonrisa
Concertado con mutuas y San Prudencio

AMURRIO
C/ Iritxusi 4-6, bajo · 01470
945 891 469

LLODIO
Avda. Zumalakarregi 3, bajo · 01400
946 721 927




## Nazioarteko ziklo-kros proba itzuli da Laudiora pandemiaren ostean

Iaz Laudiok ezin izan zuen herriko kirol-proba klasikoenetako bat hartu: Laudioko Nazioarteko Ziklo-krosa. Gaur egun txirrindularitzaren panoraman lurralde eta udalerri gutxik duten proba da. Baina azaro honetan, Laudioko Txirrindulari Elkartea osatzen duten pertsonei esker,
herritarrek ez diote uko egin joan den larunbatean, azaroaren 6an, jokatu zen XXXIII. edizioari. Lasterketa kirol modalitate horren egutegiko garrantzitsuenetako bat da. Izan ere, UCIko C1 kategoriaren barruan dago.
Proba Ellakuriko zelaietan izan zen eta guztira 700 txirrindularik hartu zuten parte. Eguraldi txarra egin zuen arren, txirrindulariek maila bikaina erakutsi zuten berriro.

Azkenean, irabazleak Lander Loockx eta Anais Morichon izan ziren.

## La prueba internacional de ciclocross regresa a Laudio tras la pandemia

El año pasado Laudio no pudo gozar del privilegio de acoger una de las pruebas deportivas más clásicas de la localidad y que pocos territorios y municipios tienen en la actualidad en el panorama ciclista: el ciclocross internacional de Laudio. Pero este noviembre, y gracias al esfuerzo y trabajo de la Sociedad Ciclista Llodiana, los y las vecinas de la localidad no se han quedado sin vivir la XXXIII edición de la prueba, una de las más importantes del calendario de esta modalidad deportiva. De hecho, se enmarca dentro de la categoría C1 de la Unión Ciclista Internacional (UCI).
La cita se dio el pasado sábado, día 6, en las campas de Ellakuri y participaron un total de 700 corredores. Pese al mal tiempo, los ciclistas volvieron a demostrar una vez más su excelente nivel.

Finalmente, quienes lograron subirse al podio fueron Lander Loockx y Anais Morichon.

## Peña Altzarrate Kirol eta Kultur Elkarteak Santa Luziako kirol proba klasikoarekin eta ohiko sari banaketarekin agurtuko du urtea

Peña Altzarrate Kirol eta Kultur Elkarteak baditu planak laudioarrentzat abendurako. Kolektiboak Santa Luziako igoera klasikoa programatu du. Aurreko edizioetan bezala, proba banakako erlojupeko modalitatean jokatuko da. Korrikalariak 2 minutuko tarteetan abiatuko dira Ugarte auzotik eta 4,2 kilometroko ibilbidea egingo dute. Irabazleek kilo bateko txuletoia eta ardo botiloia izango dute zain, gainerako edizio guztietan bezala. Gainera, proba bukatutakoan, parte hartzaileek hamaiketako tipikoaz gozatu ahal izango dute indarrak berreskuratzeko.

Aurten, Peña Altzarrate sarien VI. edizioa abenduaren 18an izango da, 19:00etan. 2021. urte honetan, ekitaldia lanbide-heziketako ikastetxeko emanaldi-aretotik laudioarrentzat erreferentziazkoa den leku batera aldatuko da: Lamuza parkeko Kasinora.

## La Asociación Deportivo Cultural Peña Altzarrate despedirá el año con su clásica prueba deportiva a Santa Luzia y con el tradicional reparto de premios

La Asociación Deportivo Cultural Peña Altzarrate ya tiene planes para los y las laudioarras en diciembre. El colectivo ha vuelto a programar su clásica subida a Santa Luzia. Al igual que en ediciones anteriores, la prueba se disputará en la modalidad de contrarreloj individual. Las y los corredores saldrán a intervalos de 2 minutos desde el barrio de Ugarte y el recorrido que realizarán será de 4,2 km. A los y las ganadoras les espera un chuletón de 1kg y el botellón de vino, como en cada edición. Además, una vez termine la prueba, los y las participantes podrán disfrutar del típico hamaiketako para recobrar fuerzas. Este año la VI edición de los premios Peña Altzarrate tendrá el lugar el 18 de diciembre a las 19:00 horas. Este 2021 el evento se trasladará de la sala de actuaciones del colegio de formación profesional a un lugar de referencia para las y los laudioarras: el Casino del parque de Lamuza.

# EKONOMIA/ ECONOMÍA

## Zergak eta tasak

Laudioko Udalak jakinarazi nahi du Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren (OHZ) eta Ekonomia-Jardueraren gaineko Zergaren bilketa boluntariorako epea abenduaren 15era arte luzatuko dela, berau barne. Helbideratutako agirien kobrantza, bi kasuetan, azaroaren 15ean egingo da.
Zerga horiek helbideratu ez dituzten pertsonek ordainketa Kutxabank, Laboral Kutxa edo Caja Ruralen egin beharko dute, etxean jasoko duten agiri bakarra aurkeztuta. Ale bikoitza eskatu daiteke Herritarren Arretarako Zerbitzuan, HAZen, udaletxearen behealdean.

## Impuestos y tasas

El Ayuntamiento de Llodio informa de que los plazos recaudatorios voluntarios para el Impuesto Municipal sobre Bienes Inmuebles (IBI) y el Impuesto sobre Actividades Económicas estarán hasta el 15 de diciembre, inclusive. El cobro de los recibos domiciliados en ambos casos se realizará el 15 de noviembre.
Las personas que no tengan domiciliados estos impuestos deberán efectuar el pago en Kutxabank, Laboral Kutxa o Caja Rural presentando el recibo único que recibirán en su domicilio. Se puede solicitar un ejemplar duplicado en el Servicio de Atención Ciudadana, SAC, en el bajo del ayuntamiento.





## Laudiok tokiko ekonomiak suspertzea helburu duen "Berrikusi" proiektu pilotua estreinatuko du

Laudioko Udala izango da Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen "Berrikusi" ekimena bultzatzen lehena. Apill-en, Laudioko Industrialde Txikien Elkartearen, laguntza ere izango du. Proiektuaren helburua tokiko ekonomiak suspertzea da, jarduera guztiak dinamizatuz eta eguneratuz, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, turismoa, aisialdia, kultura edo kirola, besteak beste. Baina, beste ezer baino lehen, pertsonak bizi diren lekuarekin berriz konektatzeko modu bat da Berrikusi, modu dibertigarrian, gaur egungoan, berraurkitu eta goza dezaten.
Aplikazio mugikor baten laguntzarekin, "Laudio Berrikusi" proiektuak Laudioko udalerrian sortzen diren jarduerei eta eskaintzei buruzko informazio kulturala, komertziala eta soziala emango die herritarrei.
Une honetan, webgunean lanean eta aplikazioa edukiz hornitzen ari gara. Laster Laudioko negozioek eta establezimenduek euren informazioa erakutsi ahal izango dute estreinatu berri den plataforman.

## Laudio estrena el proyecto piloto "Berrikusi", que busca promover la reactivación de las economías locales

El Ayuntamiento de Laudio será la primera localidad de Euskadi en impulsar "Berrikusi", la iniciativa que ha puesto en marcha el Gobierno vasco y que también cuenta con la colaboración de Apill, la Asociación de Pequeños Industriales de Laudio. El proyecto tiene por objetivo promover la reactivación de las economías locales a través de la dinamización y actualización de todas sus actividades, tales como el comercio, la hostelería, los servicios, el turismo, el ocio, la cultura, o el deporte. Pero, sobre todo, Berrikusi es un modo de reconectar a las personas con el lugar en el que viven para que lo redescubran y lo disfruten de una manera actual y divertida.
Con la ayuda de una aplicación móvil, el proyecto "Laudio Berrikusi" facilitará a los y las ciudadanas información cultural, comercial y social sobre las actividades y ofertas que surjan en el municipio de Laudio.
Actualmente se está trabajando en la web y dotando de contenido la aplicación. Próximamente los negocios y establecimientos de Laudio podrán mostrar su información en la recién estrenada plataforma.




# BERDINTASUNA/ IGUALDAD



## Laudiok "Bizitzaren bideak" antzezlana hartuko du, emakume migratzaileak eta errefuxiatuak ahalduntzeko lana

Laudioko Udalak, Berdintasun Sailaren bitartez, azaroaren 21erako, ahalduntzearen ikuspegitik landutako antzezlan berezia programatu du,: "Bizitzaren bideak". Emakume migratzaileak eta errefuxiatuak protagonista dituen ikuskizuna Kuluxka Antzerkiak zuzendu du, eta Lamuza parkeko Kasinoan egingo da, 18:00etan. Antzezlan horren bidez, jaioterritik irten eta Euskadira iritsi zirenetik hiru emakume migratzailek eta errefuxiatuk bizi izan dituzten gorabeherak ezagutuko dituzte herritarrek. Mundubat fundazioak ekoitzi du obra.

Azaroaren 27an, larunbatean, laudioarrek "A escena para em-poder-arte!" antzerki tailerrean parte hartzeko aukera izango dute. Jarduera goizez izango da, 10:30etik 13:00etara. Parte hartu nahi dutenek Berdintasun Zerbitzuan eman beharko dute izena 94 403 48 50 telefono-zenbakira deituz edo berdintasuna@gmail.com helbidera idatziz.

## Laudio acoge la obra "Los caminos de la vida", un teatro para el empoderamiento de mujeres migrantes y refugiadas

El Ayuntamiento de Laudio, a través del área de Igualdad, ha programado para el 21 de noviembre una obra de teatro muy especial y bajo la perspectiva del empoderamiento: "Los caminos de la vida". El espectáculo, protagonizado por mujeres migrantes y refugiadas y dirigido por Kuluxka Antzerkia, se llevará a cabo en el Casino del parque Lamuza a las 18:00 horas. A través de esta obra la ciudadanía conocerá las peripecias y vicisitudes que han pasado tres mujeres migrantes y refugiadas desde que salieron de su país natal y llegaron a Euskadi. La obra ha sido producida por la fundación Mundubat.

El 27 de noviembre, sábado, las y los laudioarras también tendrán ocasión de participar en el taller de teatro que ha programado el consistorio: "A escena para em-poder-arte!". La actividad se desarrollará en horario de mañana, concretamente de 10:30 a 13:00 horas. Las personas que deseen participar tendrán que inscribirse en el Servicio de Igualdad llamando al 94 403 48 50 o escribiendo a berdintasuna@gmail.com.

## Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko eguna dela eta...
## Con motivo del Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres...

### LAUDION

Azaroak 16. Irantzu Varelak, kazetari eta idazlea, "(Ya no) Soy esa" liburua aurkeztuko du Kultura Etxean 18:30etan.
16 de noviembre. La escritora y periodista Irantzu Varela presentará su libro "(Ya no) Soy esa" en la Casa de Cultura a las 18:30.

Azaroak 19. Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa, Arespalditzako Udaletxean.
19 de noviembre. Reparto de premios del concurso Beldur Barik en el Ayuntamiento de Respaldiza.

Azaroak 22. Hortzmuga Teatroak "Memoria Eraikiz" proiektu bisuala aurkeztuko du Kasinoan 18:30etan. Zentzumen bidezko bizipen honek Indarkeria matxista salatzea du helburu, diziplina anitzeko instalazio artistiko baten laguntzaz. Inskripzioak: 94 403 48 50 edo berdintasuna@laudio.eus. 16 urte gorakoentzat.
22 de noviembre. La compañía de teatro Hortzmuga presentará el proyecto "Construyendo Memoria" en el Casino a las 18:30. Esta experiencia sensorial creada a partir de una instalación artística multidisciplinar busca condenar la violencia machista. Inscripciones: 94 403 48 50 o berdintasuna@laudio.eus. Para mayores de 16 años.

Azaroak 28. Autodefentsa Feminista lantegia. Kultura Etxean 10:00 – 14:00 eta 15:00 -19:00. Emakumeei zuzenduta dago.
28 de noviembre. Taller de Autodefensa Feminista. Se llevará a cabo en la Casa de Cultura de 10:00 a 14:00 y de 15:00 a 19:00 horas.

Azaroak 26. Kaleko serigrafia tailerra Torontileren eskutik. 17:00etan Laudioko Kultura Etxean.
26 de noviembre. Taller de serigrafía callejera a cargo de Torontile. A las 17:00 horas en la Casa de Cultura de Laudio.

Azaroak 25. Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea Herriko Plazan. 18:30ean.
25 de noviembre. Concentración contra la violencia machista en la Herriko Plaza. A las 18:30 horas.

### ARETAN

Azaroak 25.
Indarkeria matxistaren aurkako horma-irudi parte-hartzailea. Eguraldiak uzten badu 16:30etik aurrera margotuko da elizako plazatik gertu dagoen horma-irudian.
Mural participativo contra la violencia matxista. Si el tiempo lo permite a partir de las 16:30 se pintará en el mural cercano a la plaza de la iglesia.

Kaleko serigrafia tailerra Torontileren eskutik. 16:30ean, elizaren plazatik gertu dagoen horma-irudiaren inguruan.
Taller de serigrafía callejera a cargo de Torontile. A las 16:30 en las inmediaciones del mural cercano a la plaza de la iglesia.

Elkarretaratzea Aretako Emakumeon izenean 19:00 eliza ondoko plazan.
Concentración en nombre de las Mujeres de Areta. A las 19:00 horas en la plaza junto a la iglesia.

# DENETARIK/ VARIOS



## URAk Laudioko San Juan errekaren uholdeei aurre egiteko lanen lizitazioa hasi ditu

URA-Uraren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari atxikiak, Laudioko San Juan errekan uholdeei aurre egiteko lanen proiektuaren lizitazioa hasi du; Zumalakarregi eta Goikoplaza artean dagoen 150 metroko tarterako, hain zuzen ere. Azaldutako proiektuaren helburua da ura husteko ahalmena handitzea eta ur-goraldien aurrean segurtasuna areagotzea, San Juan errekak Zumalakarregi eta Goikoplaza artean eta Nerbioi ibaiarekin duen elkargunean. Obrek 885.839,10 €ko (gehi BEZa) lizitazio-aurrekontua dute, eta 7 hilabeteko egikaritze-epea aurreikusten da.

## URA licita las obras de defensa ante inundaciones del arroyo San Juan en Laudio

La Agencia Vasca del Agua-URA, adscrita al departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, saca a licitación el proyecto de defensa ante inundaciones del arroyo San Juan en Llodio, un tramo de 150 m comprendido entre las calles Zumalakarregi y Goikoplaza. Las obras tienen por objeto aumentar la capacidad de desagüe del arroyo San Juan entre Zumalakarregi y Goikoplaza y su encuentro con el rio Nervión, e incrementar la seguridad ante las crecidas. Las obras cuentan con un presupuesto de licitación 885.839,10 € + IVA y se prevé un plazo de ejecución de 7 meses.




## Berdintasuna kalean, emakume guztiok errespetua merezi dugulako

**AZAROAK 15: Bideo-Foruma.** "Printzipe urdinaren" bila, ezta pentsatu ere. Maitasun erromantikoaren mitoak bikote erlazioetan zer nolako eragina duen aztertuko da.

**AZAROAK 29: Bideo-Foruma.** Indarkeria sexuala, ezetz beti da ezetz. Gizon bat bere boterea eta mendetasuna inposatzeko emakume bat beldurturik sentitzeaz baliatzen denean, emakumea zaurgarritasun egoeran gera liteke.

**Ordua**: 17:30tan
**Tokia**: Kultura Etxea
**Norentzat**: 50 urtetik gorako herritarrentzat
**Hizkuntza**: Ele bietan

## Igualdad a pie de calle, porque todas merecemos respeto

**15 de NOVIEMBRE: Vídeo Forum.** En busca del "príncipe azul", ni falta que hace. Se reflexionará sobre cómo los mitos del amor romántico afectan a las relaciones de pareja.

**29 de NOVIEMBRE: Vídeo Forum.** Violencia sexual: no es no. Se reflexionará sobre la vulnerabilidad que sienten las mujeres cuando un hombre aprovecha su miedo como arma de poder y sometimiento.

**Hora**: 17:30
**Lugar**: Casa de Cultura
**Dirigido a**: personas mayores de 50 años.
**Idioma**: Bilingüe

## Artilearekin erlazionatutako ekintza Laudion

Aurten ere, udaletxeak ekintza kolektibora jo nahi du, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriarik Ezaren Nazioarteko Egunaren inguruko esku-hartzea proposatzeko. Esku-hartze urbanoa egingo da artilearekin azaroaren 22an, astelehenez, goizean. Nerbioi kaleko hiru zubietako barandak ehotutako artile morez, lilaz eta zuriz apainduko dira. Indarkeria matxistaren atzaparretatik bizirik atera diren pertsona horiei, babesa erakutsi eta eman nahi die Udalak. Ehule taldearekin bat egin nahi duenak, artile-solasaldietara etorri besterik ez du egin behar: azaroaren 18an, 18:00etatik 20:00etara, Kultura Etxean. Informazio gehiago Emakume eta Berdintasun Zerbitzuan: 94 403 48 50.

## Acción lanera en Laudio

Este año el Ayuntamiento retomará la iniciativa colectiva con otra acción lanera de cara a la conmemoración del 25 de noviembre: Día Internacional de la no violencia contra las mujeres. Se va a llevar a cabo una intervención urbana con lana el lunes 22 de noviembre por la mañana. Se decorarán las barandillas de los tres céntricos puentes de la calle Nervión, con lana tejida en tonos morados, lilas y blancos. Con ello la institución busca mostrar y dar apoyo a las supervivientes. Quien desee unirse al grupo de tejedoras tan solo tendrá que venir a la tertulia-lanera el 18 de noviembre de 18:00 a 20:00 horas. Se desarrollará en la Casa de Cultura. Más información en el Servicio de Mujer e Igualdad 94 403 48 50.

# GAZTERIA/ JUVENTUD

## Sukaldaritza tailerrak

Negu honetan, 2011, 2010 eta 2009 urteetan Abenduaren 27an eta 28an sukaldaritza eta nutrizio tailerrak eskainiko dira 12 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Elena Jorrin nutrizionista laudioarrak emango ditu tailerrak. Izen-emateak, ikastaro baterako edo gehiagorako, Gazteria Zerbitzuan egin beharko dira, 94 403 48 50 telefono-zenbakira deituz edo hezkuntza@laudio.eus helbidera idatziz. Plazak mugatuak izango dira. Saioak hauek izango dira:

## Taller de cocina

Los días 27 y 28 de diciembre se ofrecerán talleres de cocina y nutrición para jóvenes de entre 12 y 35 años. Las actividades correrán a cargo de la nutricionista laudioarra Elena Jorrín. Las inscripciones -para uno o varios cursos- se deberá realizar en el Servicio de Juventud, llamando al 94 403 48 50, o escribiendo a hezkuntza@laudio.eus. Las plazas serán limitadas. Las sesiones serán las siguientes:

- **ABENDUAK 27**: Errezeta begetarianoak. Recetas vegetarianas. Ordutegia/ Horario: 10:00-12:00 |12:30-14:30
- **7 de DICIEMBRE:** Ospakizun eta urtebetetze osasungarriak. Celebraciones y cumpleaños saludables. Ordutegia/ Horario: 16:00-18:00 | 18:30-20:30

- **ABENDUAK 28:** Kirol-nutrizioa. Nutrición deportiva. Ordutegia/ Horario: 10:00-12:00 (euskera) | 12:30-14:30 (euskera)
- **Abenduak 28 de DICIEMBRE:** Sukalde azkarra eta erraza mikrouhin-labean. Cocina rápida y sencilla en microondas. Ordutegia/ Horario: 16:00-18:00 | 18:00-20:30



## Negulekuak eta Neguko Games, gazteen aisialdirako Laudioko eskaintza negu honetan

Negu honetan, 2011, 2010 eta 2009 urteetan jaiotako gazteei zuzendutako Negulekuak programa aurkeztuko da Laudion. Aisialdiaren arloko gizarte- eta hezkuntza-gunea da, eta elkartzeko, harremanetan jartzeko eta jolasteko leku bat emango die gazteei, euren nortasuna garatzen laguntzeko.
2006, 2007 eta 2008an jaiotakoek ere, Neguko Games izeneko jarduera izango dute. Programa horren bidez, adingabeek, erronka ludikoetan oinarritutako etengabeko abentura biziko dute, eta eurak izango dira euren istorioaren protagonistak.
Pertsona bakoitzak azaroaren 15etik abenduaren 10era bitartean eman dezake izena, 944 034 850 telefono-zenbakian edo hezkuntza@laudio.eus helbide elektronikoan. Prezioa 5 eurokoa izango da talde bakoitzeko.

## Negulekuak y Neguko Games, la oferta de ocio juvenil de Laudio este invierno

Este invierno se presenta en Laudio el programa Negulekuak, dirigido a personas nacidas en los años 2011, 2010 y 2009. Se trata de un espacio socioeducativo en el ámbito del tiempo libre, que proporcionará a las personas jóvenes un lugar de encuentro, relación y juego favoreciendo así el desarrollo de su personalidad.
Los y las nacidas en los años 2006, 2007 y 2008, también tendrán una actividad: Neguko Games. A través de este programa las y los menores vivirán una aventura continua basada en diferentes retos lúdicos, y los protagonistas de su propia historia serán ellos y ellas mismas.
Cada persona puede apuntarse las semanas que quiera desde el 15 noviembre y hasta el 10 de diciembre en el teléfono 944 034 850 o a través del correo electrónico hezkuntza@laudio.eus. El precio será de 5 euros por grupo.

| | DATA FECHAS | ORDUTEGIA HORARIO |
|---|---|---|
| TALDEA 1 GRUPO | Abenduaren 24tik 31ra Del 24 al 31 de diciembre | 9:30-13:30 |
| TALDEA 2 GRUPO | Abenduaren 24tik 31ra Del 24 al 31 de diciembre | 15:30 – 19:30 |
| TALDEA 3 GRUPO | Urtarrilaren 2tik 9ra Del 2 al 9 de enero | 9:30 – 13:30 |
| TALDEA 4 GRUPO | Urtarrilaren 2tik 9ra Del 2 al 9 de enero | 15:30 – 19:30 |

## Odola emateko egutegia. Azaroa
Calendario donación de sangre. Noviembre

| | | | |
|---|---|---|---|
| ASTEAZKENA 17 MIÉRCOLES | ARDANTZAZAR | CAMILLAS | 16:30-20:00 |
| ASTEARTEA 23 MARTES | ARETA | BUS | 16:45-20:00 |
| ASTEAZKENA 24 MIÉRCOLES | ARDANTZAZAR | CAMILLAS | 16:30-20:00 |
| OSTEGUNA 25 JUEVES | ALDAI PLAZA | BUS | 9:45-13:00 |

# GIZARTEA / SOCIEDAD

## Sartu Laudioko ikastaro berriak
## Los nuevos cursos de Sartu Llodio

### BILTEGIKO JARDUERA LAGUNGARRIAK
### ACTIVIDADES AUXILIARES DE ALMACÉN

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren 20tik 2022ko otsailaren 20ra
Fecha: del 20 de diciembre l 20 de febrero de 2022
Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 09:30etatik 15:00k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 15:00
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15

### MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE- ETA OSASUN-ARRETA EMATEA
### ATENCIÓN SOCIOSANITARIA A PERSONAS DEPENDIENTES EN INSTITUCIONES SOCIALES

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren 28tik 2022ko martxoaren 27ra
Fecha: del 28 de diciembre al 27 de marzo de 2022
Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 09:30etatik 14:30k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 14:30
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15

### ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA
### SOLDADURA CON ELECTRODO REVESTIDO Y TIG

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren13tik 2022ko ekainaren 15era
Fecha: del 13 de diciembre al 15 de junio de 2022

Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 15:00tatik 20:30k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 15:00
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15

## Gurutze Gorriaren enplegu-plana Aiarako Koadrilako gazteei iritsi zaie "Go gara" programarekin

Gurutze Gorriak, bere enplegu-planaren bidez, "GO gara, Aukeren Belaunaldia" kanpaina abiarazi du Aiarako Koadrilako gazteei zuzenduta. Helburua gazteen talentuari balioa ematea da eta lan-ingurune errealetan prestakuntza-esperientziak eta kolektibo hori kontratatzea ahalbidetzen duten enpresen beharrezko inplikazioa lortzea da.
Gurutze Gorriak 'GO gara, Aukeren Belaunaldia' programaren bidez, 16 eta 29 urte bitarteko gazteei berariaz zuzendutako ekimenak gauzatzen ditu. Programa horretan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da prestakuntza arautua ikasten ez egotea, proiektuan izena emateko unean lanean ez egotea eta lanerako baimena izatea. Programan interesa dutenek aldez aurretik eman dezakete izena Laudioko, Amurrioko eta Urduñako Batzarretan.
Laudioko batzar kokalekua: Zumalakarregi etorbidea, 62 (jendaurreko ordutegia astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara / astelehen eta asteazkenetan 16:00etatik 19:00etara)

## El plan de empleo de Cruz Roja llega a los jóvenes de la Cuadrilla de Ayala con el programa "Somos Go"

La Cruz Roja, a través de su plan de empleo, ha lanzado la campaña "Somos GO, una Generación de Oportunidades" para la juventud de la zona de la cuadrilla de Ayala. El objetivo es poner en valor el talento de los y las jóvenes y conseguir la implicación necesaria de las empresas que hacen posible experiencias formativas en entornos reales de trabajo y la contratación del citado colectivo.
El programa 'Somos GO, una Generación de Oportunidades', desarrolla iniciativas dirigidas específicamente a jóvenes de entre 16 y 29 años. Para poder optar a este programa, es necesario no estar estudiando formación reglada ni trabajando en el momento de inscripción en el proyecto y tener permiso de trabajo. Las personas que estén interesadas en el programa pueden inscribirse con cita previa en las Asambleas de Laudio, Amurrio y Orduña.
Ubicación de la asamblea de Laudio: Avenida Zumalakarregi, 62 (Horario de att al público lunes a viernes de 9 a 14 / lunes y miércoles de 16:00 a 19:00).

## APILLek "Ordubeteko doako aparkalekua" kanpaina eta "Patata Tortilla Pintxoaren" Ibilbide klasikoa abiarazi du

APILLek, Laudioko Industrial Txikien Elkarteak, herriko kontsumoa sustatu nahi du, merkataritzara hurbiltzen diren pertsona guztiei erdigunean bertan aparkatzeko aukera erraztuz. Hori horrela, abenduaren 31ra arte, kolektiboak aparkaldiko lehen ordubetea oparituko die Aldaiko aparkalekura hurbildu eta bertako saltokietan erosten duten bezeroei. Parte hartu nahi duten saltokiek doan eman dezakete izena azaroaren 18a baino lehen.
Bestalde, ohiko Gilda Ibilbidea arrakastaz amaitu ondoren, APILLek "Patata Tortilla Pintxoaren" Ibilbide klasikoa abiarazi du berriro azaroaren bigarren hamabostaldirako. Lehiaketako sariak eskuratzeko, patata tortillaren Ibilbide-orria (parte hartzen duten establezimenduetan dago eskuragarri) bete beharko da, azaroaren 15etik 28ra bitartean, eta 4 establezimendu desberdinetan zigilatu beharko da, bat gutxienez periferiako lokal batean. Orria APILLen atari barruko postontzian edo Udaletxean dagoen hautestontzian utzi beharko da.

## APILL lanza la campaña "Una hora de parking gratuita" y retoma la ruta del "Pintxo de Tortilla de Patata" para promocionar el consumo local

APILL, la asociación de Pequeños Industriales de Laudio, quiere incentivar el consumo local en la localidad facilitando el aparcamiento en el mismo centro a todas las personas que se acerquen al entorno comercial. Así, y hasta el 31 de diciembre, el colectivo regalará la primera hora de estacionamiento gratuito a los clientes que se acerquen al parking de Aldai y compren en el comercio local. Los comercios que estén interesados en participar se pueden inscribir de manera gratuita antes del 18 de noviembre.
Por otro lado, y una vez finalizada con éxito la Ruta de la Gilda tradicional, APILL ha vuelto a lanzar para la segunda quincena de noviembre la clásica Ruta del "Pintxo de Tortilla de Patata". Para optar a los premios del concurso, se deberá rellenar la Hoja de Ruta de la Tortilla de Patata (disponible en los establecimientos participantes) entre el 15 y el 28 de noviembre, sellando en 4 establecimientos participantes diferentes, siendo al menos un local de periferia. La hoja se podrá depositar en el buzón interior del portal de APILL o en la urna ubicada el Ayuntamiento.

# AGENDA

## Arteon Laudioren ongintzazko kontzertuak

## Conciertos benéficos de Arteon Laudio

**AZAROAK 26.** Kontzertua Miribillako kiroldegian (Bilbo). BOSek, eta beste talde eta artista batzuek ere parte hartuko dute.

**26 de NOVIEMBRE.** Concierto en el Polideportivo de Miribilla (Bilbao), junto a la BOS y otras agrupaciones y artistas.

**AZAROAREN 27an,** 20:00etan, Arteon Laudiok, Fair Saturdayren programazioaren barruan eta Laudioko Udalaren laguntzarekin, kontzertua eskainiko du Lamuzako San Pedro parrokian. Ongintzazko ekitaldia izango da eta Bilboko Rossini Abesbatzarekin batera eskainiko da, Gurutze Gorriaren alde. Helburua Aiaran bazterketa-arriskuan dauden haurrei laguntzeko dirua biltzea da. Horretarako, Gurutze Gorriko boluntarioek elizaren kanpoaldean jasoko dituzte parte-hartzaileek egin nahi dituzten borondatezko ekarpenak. Gurutze Gorriaren ES8820953150221095084215 kontu-zenbakian ere egin ahal izango dira ekarpenak, kontzeptu gisa FILA ARTEON adieraziz.

**27 de NOVIEMBRE**, a las 20:00 horas, Arteon Laudio, dentro de la programación de Fair Saturday y con la colaboración del Ayuntamiento de Laudio, ofrecerá un concierto en la parroquia de San Pedro de Lamuza. Será un evento benéfico junto al Coro Rossini de Bilbao a favor de Cruz Roja. El objetivo es recaudar fondos para ayudar a las niñas y niños en riesgo de exclusión en Aiara. A tal efecto, voluntarios de Cruz Roja recogerán en el exterior de la iglesia las aportaciones voluntarias que quieran hacer los asistentes. También se podrán realizar aportaciones en el número de cuenta de Cruz Roja ES8820953150221095084215, indicando como concepto FILA ARTEON.

## Kaleko antzerkia
## Teatro de calle

**AZAROAK 19 eta 27.** 20:30 Lamuza parkean "Tartana" zirku ikuskizuna Trucos Lucos-ren eskutik.

**19 y 27 de NOVIEMBRE.** A las 20:30 en el parque Lamuza la compañía de circo Trucos Lucos presentará su obra "Tartana".

## Solasaldia / Charla

**AZAROAK 30.** Sarrera librea eta doakoa izango da. Solasaldia Kultura Etxean izango da arratsaldeko 18:00etan.

- Alzheimer gaixotasuna eta beste dementzia mota batzuk; zeinuak eta sintomak, eta psikoestimulaziotik abiatuta lantzea. Zuriñe Majuelok, estimulazio kognitiboan espezializatutako AFARABAko psikologoak, emango du.
- Dementziaren eragina familian; laguntzarako erantzunak. Paula Casas AFARABAko gizarte-langileak emango du.

**30 de NOVIEMBRE.** Entrada libre y gratuita a las 18:00 horas en la Casa de Cultura de Laudio.

-Enfermedad de Alzheimer y otros tipos de demencia; signos, síntomas y abordaje desde la psicoestimulación. Lo impartirá Zuriñe Majuelo, psicóloga de AFARABA, especializada en estimulación cognitiva.

- Impacto de la demencia a nivel familiar; respuestas de apoyo. Lo impartirá Paula Casas, trabajadora social de AFARABA.

## Asasam erakusketa

Azaroaren 19ra arte Asasameko erabiltzaileen obren erakusketa Kultura Etxeko Alday aretoan.

## Exposición Asasam

Hasta el 19 de noviembre, los usuarios de Asasam expondrán sus obras en la sala Alday de la Casa de Cultura.

# TOP ZINEMA




**AZAROAK 13** NOVIEMBRE
18:30 // **3€**
**>DUNE**

**AZAROAK 21** NOVIEMBRE
18:30 // **3€**
**>DARTAÑAN EUSKARAZ**



**AZAROAK 27** NOVIEMBRE
18:30 // **3€**
**>MADRES PARALELAS**




## AZAROA - NOVIEMBRE

| DATA FECHA | ORDUA HORA | EKITALDIA ACTUACIÓN |
|---|---|---|
| **2021/11/14** Igandea /Domingo | **19:00** | **Kontzertua SANTA LUCIA eta ANDERE abesbatzen eskutik** Concierto a cargo de la CORAL SANTA LUCIA y la CORAL ANDERE |
| **2021/11/20** Larunbata/Sábado | **20:00** | **Kontzertua BI HOTSAK ABESBATZAREN eskutik** Concierto a cargo de la CORAL BI HOTSAK |
| **2021/11/21** Igandea/Domingo | **19:00** | **Kontzertua AKELARRE ABESBATZAREN eskutik** Concierto a cargo de la CORAL AKELARRE |
| **2021/11/27** Larunbata/Sábado | **20:00** | **Kontzertua ARTE ON FUNDAZIOAREN eskutik** Concierto a cargo de la FUNDACION ARTE ON |
| **2021/11/28** Igandea/Domingo | **19:00** | **Kontzertua SAN ROKE MUSIKA ELKARTEAREN eskutik** Concierto a cargo de la AGRUP. MUSICAL SAN ROKE |

## ABENDUA - DICIEMBRE

| | | |
|---|---|---|
| **2021/12/3** Ostirala/Viernes | **20:00** | **Akordeoi eta piano kontzertua EZUST DUO taldearen eskutik** Concierto de acordeón y piano a cargo del grupo EZUST DUO |

***LEKUA: Lamuzako San Pedro Parrokia***
***Laudioko Udalak Lamuzako San Pedro Parrokiaren laguntza eskuzabala eskertzen du, kontzertuetarako bere lekua lagatzeagatik***
***LUGAR: Parroquia de San Pedro de Lamuza***
*El Ayuntamiento de Laudio agradece la colaboración desinteresada de la Parroquia de San Pedro de Lamuza por ceder su espacio para los conciertos.*